

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Lasarte-Oriako Udala**

**Ayuntamiento de Lasarte-Oria**

**2019**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
III.2 Zerga-sarrerak .....	9
III.3 Langileria.....	9
III.4 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	10
III.5 Kontratazioa.....	10
III.6 Bestelakoak .....	11
IV.FINANTZAREN ANALISIA.....	12
V. URTEKO KONTUAK .....	15
ERANSKINAK .....	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	19
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak .....	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	21
A.5 Langileen gastuak.....	23
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	25
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	26
A.8 Inbertsio errealak, ibilgetua eta epe luzeko finantza inbertsioak.....	27
A.9 Zorpetzea .....	28
A.10 Zordunak .....	28
A.11 Hartzekodunak .....	29
A.12 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	30
A.13 Kontratazioa.....	31
ALEGAZIOAK .....	33



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>37</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>39</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>40</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	40
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	40
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>41</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	41
III.2 Ingresos fiscales .....	41
III.3 Personal.....	41
III.4 Transferencias y subvenciones concedidas .....	42
III.5 Contratación .....	42
III.6 Otros .....	43
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>44</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>48</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>51</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	51
A.2 Contabilidad y presupuestos.....	51
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	52
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	53
A.5 Gastos de personal .....	55
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	57
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	58
A.8 Inversiones reales, inmovilizado e inversiones financieras a largo plazo ...	59
A.9 Endeudamiento .....	60
A.10 Deudores.....	61
A.11 Acreedores .....	62
A.12 Actuaciones urbanísticas y planeamiento .....	62
A.13 Contratación .....	64
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>67</b>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 25a  
Vitoria-Gasteiz 25 de febrero de 2021



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FA	Foru Araua.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HIE	Hirigintza Intereseko Elkartea.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.
XG	Xedapen Gehigarria.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Lasarte-Oriako Udalaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Lasarte-Oriako udalerriak 18.380 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren leian; honako erakunde hauetako kide da: San Markoko Mankomunitatea (HHSen kudeaketa), Añarbeko Uren Mankomunitatea (bideraketa sareko uraren hornidura eta saneamendua), Haurreskolak Partzuergoa (haurtzaindegien kudeaketa) eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza (garraio-zerbitzua).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **LANGILERIA**

1. Lanpostu zerrendako 7 lanpostu 1989ko ekainean kontratua amaitu eta aldi baterako lan-kontratua duten langileek betetzen dituzte.

#### **KONTRATAZIOA**

2. 2019ko ekitaldian Udalak bederatzi zerbitzuri zegozkien 1,6 milioi euroren gastuak egikaritu zituen kontratuen indarraldia amaitu ostean, bakar batean ere esleipenak berritu gabe (ikus A.16.2).

Epaitegi honen ustetan, Lasarte-Oriako Udalak, 1. eta 2. paragrafoetan zehaztutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### **II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Lasarte-Oriako Mankomunitatearen Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.





### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2018ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarria zaion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- 2019ko Kontu Orokorra ez zaio Osoko Bilkurari onartzeko aurkeztu 2020ko azaroaren 12ra arte (ikus A.2).
- 2019ko ekitaldiko likidazioak 599.978 euroren urte anitzeko kredituak aurreikusten zituen Jaizkibel plaza urbanizatzeko, nahiz ez zegoen jarduera horri loturiko geroko gastu-konpromisorik eta ekitaldi itxieran tramitazioa hasi ere egin gabe zegoen.
- Gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikin bidez finantzatutako gastuak 9 milioi euro dira eta ez 9,1 milioi euro; gainera, ekitaldian 294.303 euroren finantzaketa-desbideratze positiboak izan dira, aurrekontuko emaitza doitua kalkulatzeko aintzat hartu ez direnak; honenbestez, magnitude hori likidazioan aurkeztutakoa baino 395.962 euro txikiagoa da. Gainera, ekitaldi itxieran Diruzaintza Geldikinaren zati bat, 297.216 eurorena, finantzaketa atxikia duten gastuetarako da.
- Aurrekontuko araudiaren arabera, nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jo behar dira kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzintasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak. Udalak ez ditu aintzat hartu zalantzako kobragarritasuneko saldoak kalkulatzeko, transferentziak eta dirulaguntzak eta ondare-sarrerak kapituluetakoko eskubideak (ikus A.10).

#### III.2 ZERGA-SARRERAK

- EIOZ arautzen duen zerga-ordenantzak zergaren foru-arauan aurreikusi gabeko bi hobari barne hartzen ditu, eta hobari-ehuneko handiagoa duen beste bat.

#### III.3 LANGILERIA

- Udalak ez ditu GAOn osorik argitaratu dedikazio eskusiboa eta partziala duten kargudunen ordainsariei buruzko udalbatzaren erabakiak, ez eta kalte-ordain eta bilkuretara joan izanari buruzkoak ere.
- Berebat, ez da ageri Udalaren Lanpostu zerrenda GAOn argitaratu denik ere.
- LZ horrek 28 lanpostu jasotzen ditu lan arloko legediari meneratuak eta horiek, ezargarria den araudiaren arabera, karrerako funtzionarioentzat gordeak behar lukete egon.



- Udalak 2019an langileei produktibitate-osagarri bat ordaindu die, guztira 147.618 euro, baina esleipen irizpideak ez dagozkio langile bakoitzak bere lanpostuari esleitutako egitekoak betetzean izan duen etekin, interes edo ekimen bereziari (ikus A.5).

### III.4 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Ez dira betetzen Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko obligazioak.
- Orokorrean ez da egiaztatzen dirulaguntzen onuradunak egunean daudenik zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan.

### III.5 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.

#### Kontratazio-espeditenteak (ikus A.13.1)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zortzi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu:

- Guztira 3,4 milioi euroan esleitutako hiru kontraturen pleguek (1, 2 eta 7 espeditenteak) ez dute aurreikusten parte-hartzeko eskaintza eta eskabideak baliabide elektronikoko bidez aurkeztea, eta ez dago hori arrazoituko duen berariazko txostenik.
- Guztira 5,8 milioi euroan esleitutako bost kontratutan (1, 2, 3, 4 eta 8 zk. espeditenteak), alkatea da kontratazio organoa eta aldi berean, kontratazio mahaiaren burua; honek ez du betetzen zereginen ezinbesteko bereizketa, pertsona berean ez daitezela elkartu esleipen proposamena jaulki eta hartzeko izateak.
- 2,2 milioi euroan esleitutako zerbitzu batean (3. espeditentea), esleipen-ebazpenean eta gauzatutako kontratuan ageri den prezioa urteko bati dagokio eta ez kontratua betetzeko epe osoari, hau da, lau urte). Behin betiko bermearen zenbatekoa kalkulatzeko ere urteko bakarria hartu zen aintzat.
- 1,7 milioi euroan esleitutako obra kontratu baten esleipen-ebazpenak ez du ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen.
- Espediente horri dagokionez, ez da ageri kontratatzailearen profilean onartutako kontratu-aldaketei buruzko informazioa argitaratu denik.
- Guztira 3,6 milioi euroan esleitutako lau kontratu egikaritzean atzerapenak izan ziren. Horetako hirutan (1, 4 eta 8 espeditenteak) ez da ageri epe luzaketerik onartu edo kontratatzaileari zehapenik jarri zaionik eta beste batean (2. espeditentea), epe luzapenak behin egikaritzeko epea amaitu ondoren onartu ziren.
- Kontu-hartzailea ez zen obra-kontratu baten materiala jasotzera joan (1. espeditentea), 1,5 milioi euroan esleitutakoa.



### Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastuak

- Udalak 2019ko ekitaldian hiru zerbitzuri zegozkion gastuak kontratatu zituen, guztira 98.397 euroren zenbatekoan, nahitaezko prozedurak izapidetu gabe; kopuruak aintzat hartuta, prozedura horiek ireki erraztu laburtuak izan zitezkeen (ikus A.13.2).
- 2019ko ekitaldian Udalak lau zerbitzuri zegozkien gastuak egikaritu zituen kontratuen indarraldia amaitu ostean, 117.636 euroren zenbatekoan (ikus A.13.2).

### III.6 BESTELAKOAK

#### Gardentasuna

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak eta hitzarmenei eta emandako dirulaguntza eta laguntzei buruzko datu gaurkotuak.

#### Zerbitzu mankomunatuak

- Udalak 2019ko ekitaldian San Markoko Mankomunitateari 742.411 milioi euroren ekarpenak ordaindu dizkio hiri-hondakin solidoak eta bio-hondakinak kudeatzeko zerbitzua finantzatzeko, tratatzeko edo desegiteko emandako tona kopuruaren arabera, nahiz mankomunitateko Estatutuek agintzen duten banaketa-irizpide bakarra biztanle kopurua dela.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.048	8.712	9.820	553	477	534
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	14.132	13.608	13.848	778	746	753
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	230	200	270	13	11	15
<b>A. Sarrera arruntak .....</b>	<b>24.410</b>	<b>22.520</b>	<b>23.938</b>	<b>1.344</b>	<b>1.234</b>	<b>1.302</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	6.850	6.937	7.212	377	380	392
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	10.751	7.814	7.623	592	428	415
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	2.125	2.300	2.610	117	126	142
<b>B. Funtzionamendu-gastuak .....</b>	<b>19.726</b>	<b>17.051</b>	<b>17.445</b>	<b>1.086</b>	<b>934</b>	<b>949</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>4.684</b>	<b>5.469</b>	<b>6.493</b>	<b>258</b>	<b>300</b>	<b>353</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	1	1	1	-	-	-
<b>Emaitza arrunta.....</b>	<b>4.683</b>	<b>5.468</b>	<b>6.492</b>	<b>258</b>	<b>300</b>	<b>353</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	603	343	342	33	19	19
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>4.080</b>	<b>5.125</b>	<b>6.150</b>	<b>225</b>	<b>281</b>	<b>334</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	995	354	-	55	19	-
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	565	106	538	31	6	29
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	2.495	1.387	9.936	138	76	541
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	71	26	-	4	1
<b>Kapitalezko eragiketen emaitza .....</b>	<b>(935)</b>	<b>(998)</b>	<b>(9.424)</b>	<b>(52)</b>	<b>(55)</b>	<b>(513)</b>
<b>Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....</b>	<b>3.748</b>	<b>4.470</b>	<b>(2.932)</b>	<b>206</b>	<b>245</b>	<b>(160)</b>
<b>Diruzaintza geldikina.....</b>	<b>9.070</b>	<b>13.042</b>	<b>9.258</b>	<b>499</b>	<b>715</b>	<b>504</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina .....</b>	<b>9.070</b>	<b>13.042</b>	<b>9.258</b>	<b>499</b>	<b>715</b>	<b>504</b>
<b>Zorpetzea.....</b>	<b>1.028</b>	<b>685</b>	<b>343</b>	<b>57</b>	<b>38</b>	<b>19</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2018an % 8 egin dute behera aurreko ekitaldiaren aldean eta hein batean 2019an erregistraturiko % 6ko igoerarekin berdindu dira; honenbestez, aztertutako aldian guztira % 2ko bariazio negatiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Bilakaera sarrera arruntek izan dutenaren antzekoa da, baita bariazio garbia ere, nahiz urtearteko bariazioak handiagoak diren, % 10etik gorakoak. 2018ko beheraldia Atsobakar egoitzaren diru-sarrerak desagertu izanak eragin du, batik bat (urte horretako urtarrilaren laz geroztik Kabia GFaren erakunde autonomoan integratu baitzen) eta neurri txikiagoan, EIOZaren bikakaerak. Sarrerak 2019an izandako igoerari dagokionez, zerga horren bilakaerari ere lotua dago.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Bariazio garbia ere oso antzekoa da sarrera hauetan, urtearteko bariazioak, berriz, txikiagoak dira eta ez dute % 4a jotzen. 2018an, ehuneko horretatik hurbil dagoen beherakada izan dute, nahiz eta zerga itunduetako



partaidetzari (UFFF) dagozkion diru-sarrerak milioi bat euro baino gehiago handitu diren, GFak udaletako gizarte-zerbitzuak finantzatzeko ematen dituen diru-laguntzen murrizketa handiagatik, jada aipatu dugun Atsobakar egoitzaren eskualdatzarekin batera. 2019an % 2 inguruko gorakada izan da, eta batez ere, UFFFren bilakaerak izan du eragina.

**Funtzionamendu-gastuak:** Diru-sarrera arrunten kasuan bezala, funtzionamendu-gastuak murriztu egin dira 2018an aurreko ekitaldiaren aldean, eta igo egin dira 2019an, aldi horren bariazioa guztira negatiboa izanik. Aldea honetan datza: 2018ko murrizketa nabarmenagoa da diru-sarrera arrunten kasuan baino (% 13), eta 2019ko igoera txikiagoa (% 2); beraz, aztertutako aldiaren guztizko murrizketa handiagoa da funtzionamendu-gastuen kasuan (% 11). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2018an eta 2019an gora egin dute aurre-aurreko ekitaldien aldean, hurrenez hurren % 1 eta % 4, aztertutako aldiko igoera osoa % 5 izanik. Gastuak 2019an izan duen igoerari dagokionez, nagusiki, aplikatutako soldata igoerari eta aldi baterako lan kontratupeko langileen kontratazioek eragin dute (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** Gastu hauen bilakaera negatiboa da aztertutako aldi guztian eta 2018 eta 2019ko ekitaldietan, hurrenez hurren, % 27 eta % 2ko murriztuko dira. Gastuak 2018an izan duen murrizketa, hein handi batean, Atsobakar egoitza Kabiara eskualdatu izanak eta horren gastuak desagertu izanak eragin du; gastu horiek 2017an hiru milioi euroak gainditu zituzten.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Gastu honek aztertutako aldi osoan izan duen bilakaera goranzkoa izan da eta % 23ko igoera izan du epe horretan. Bada, gastuaren bilakaeran aparteko eragina du aztertutako aldiaren San Markoko Mankomunitateari egindako ekarpenek izan duten igoera, % 46 inguru aztertutako aldiaren eta aintzat hartutako ekitaldi bakoitzean kapituluaren erregistratu diren gastu guztien gainean % 50 da.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeek saldo positiboa erakutsi dute aztertutako aldiaren hiru ekitaldietan eta, gainera, goranzko bilakaera dute, epe horretan igoeren bariazioa guztira % 39 eta % 51 izan delarik; honela, bada, 2017ko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 19 eta % 17 egitetik, 2019an sarrera arrunten % 27 eta % 26 egitera aldatu dira, hurrenez hurren.

**Kapital eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako ekitaldi guztietan, nahiz aurrezki garbia adierazitako saldoak baino handiagoa den lehenengo bietan. 2019an inbertsio errealek izandako igoera handiaren ondorioz, aurrezki garbi positiboak ez du kapitalezko eragiketen emaitza negatiboa berdindu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Eragiketa ez-finantzarioen emaitza:** Positiboa da aztertutako aldiko lehenengo bi ekitaldietan, baina 2019an aurreko paragrafoan azaldutakoagatik, negatiboa izatera aldatu da eta % 178ko murrizketa izan du 2017koaren aldean.

**Diruzaintza Geldikina:** Aztertutako aldiaren bilakaera positiboa izan du eta % 2ko igoera erregistratu du epe horretan, nahiz 2019an % 29 egin zuen behera aurreko ekitaldiaren aldean.

**Zorpetzea:** Ia % 60 egin du behera aztertutako aldiaren, egindako amortizazioen ondorioz. Aztertutako aldiaren ez da beste zorpetze eragiketarik gauzatu.

**Ondorioa:** Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko; alabaina, inbertsio horiek ezingo dira izan 2019koak bezalakoak modu iraunkorrean. Esan beharra dago, gainera, 2020an sarrerek nabarmen behera egitea aurreikusten dela, bai diru-bilketa bera, bai itunpeko zergetan partaidetza, COVID-19 pandemiaren eraginez.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun-printzipioa eta gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari dagokionez honako hau jasotzen du 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua ez da bete, eragiketa ez-finantzarioek defizita eragin baitute.
- Ez da gastuaren araua bete, izan ere 2018ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak gainditu egin zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziatzko hazkuntza tasa (% 2,7).
- Zor publikoaren helburua bete da, 2019ko abenduaren 31ko zor biziak ez baitu ekitaldian kitatutako sarrera arrunten % 72 gainditu.

Lehenengo bi paragrafoetan azaldutako ez-betetzeak Diruzaintza Geldikina erabili izanaren ondorioz gertatu zirenez gero, ekonomia eta finantza plan baten formulatu beharrean, Kontu-hartzaitzak egoera hori baitesten zuen txosten bat egin zuen eta erakundeko Osoko Bilkurari jakinarazi (otsailaren 8ko 1/2013 FAREN 5.3 artikulua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantzaren iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	4.095	-	4.095	4.258	3.710	548	% 104
2. Zeharkako zergak .....	A.3	771	-	771	1.154	329	825	% 150
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	4.222	-	4.222	4.408	3.625	783	% 104
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	13.847	-	13.847	13.848	13.409	439	% 100
5. Ondare-sarrerak.....	A.8	274	-	274	270	270	-	% 99
6. Inbertsio errealen besterentzea .....		3.502	-	3.502	-	-	-	% 0
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	1.451	-	1.451	538	238	300	% 37
8. Aktibo finantzarioak .....		-	11.236	11.236	13	13	-	E/E
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>28.162</b>	<b>11.236</b>	<b>39.398</b>	<b>24.489</b>	<b>21.594</b>	<b>2.895 (*)</b>	<b>% 87</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.		
1. Langileria-gastuak.....	A.5	7.743	76	7.819	7.212	7.149	63	% 92
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ...	A.6	9.640	26	9.666	7.623	6.543	1.080	% 79
3. Gastu finantzarioak.....		1	-	1	1	1	-	% 100
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	2.716	311	3.027	2.610	2.398	212	% 86
5. Kreditu globala .....		692	-	692	-	-	-	% 0
6. Inbertsio errealak .....	A.8	5.952	10.823	16.775	9.936	9.271	665	% 59
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	1.070	-	1.070	26	-	26	% 2
8. Aktibo finantzarioak .....		-	-	-	2	2	-	E/E
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	342	-	342	342	342	-	% 100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>28.156</b>	<b>11.236</b>	<b>39.392</b>	<b>27.752</b>	<b>25.706</b>	<b>2.046</b>	<b>% 70</b>

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBRA./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	A.10	3.468	77	2.742	649
Ordaintzeko dauden saldoak.....		1.915	-	1.915	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(77)</b>		



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....		24.489
Obligazio aitortuak.....		(27.752)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(3.263)</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(77)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>		<b>(3.340)</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....		-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		9.055
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>		<b>5.715</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Euroak milakotan
<b>DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)</b>		<b>3.420</b>
<b>KOBRATZEKO DAUDEN SALDOAK 2019/12/31N (ikus A.10) (B)</b>		<b>9.825</b>
Diru-sarreren aurrekontukoak, unekoa.....		2.895
Sarreren aurrekontukoak, itxia.....		649
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketakoak.....		6.281
<b>ORDAINZEKO DAUDEN SALDOAK 2019/12/31N (ikus A.11) (C)</b>		<b>3.381</b>
Gastuen aurrekontukoa, arrunta.....		2.046
Gastuen aurrekontukoa, itxiak.....		-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak.....		1.335
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)</b>		<b>-</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)</b>		<b>9.864</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10).....		(606)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina.....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA</b>		<b>9.258</b>
<b>ZORPETZEA 19.12.31N (ikus A.9)</b>		<b>343</b>

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA		Euroak milakotan		
	ERANSKINA	2020	2021	GUZTIRA
4. Transferentzia arruntak.....	A.7	154	-	154
6. Inbertsio errealak.....	(*)	600	-	600
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	670	392	1.062
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.424</b>	<b>392</b>	<b>1.816</b>

(\*) Ikus III.1 atala.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2019	2018		ERANSKINA	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>144.107</b>	<b>135.272</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>151.317</b>	<b>145.900</b>
Ibilgetu ukiezina.....	A.8	668	667	Ekarrisiko ondarea.....		141.442	141.442
Ibilgetu materiala.....	A.8	105.926	97.202	Sortutako ondarea.....		7.823	2.864
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.8	6.033	6.114	Jasotako dirulag.,egotzi gab.....		2.052	1.594
Lurraren Ondare Publikoa .....	A.8	31.480	31.281				
Epe luzeko finantza inberts. ....	A.8	-	8	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>A.11</b>	<b>1.690</b>	<b>2.059</b>
				Epe luzeko zorrak .....		3	346
				Aldizkakotzeagatik doik. epe/luz.....		1.687	1.713
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>12.647</b>	<b>16.268</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>A.11</b>	<b>3.747</b>	<b>3.581</b>
Zord. eta kobr. bst knt b. ....	A.10	3.020	2.942	Epe motzeko zorrak.....		1.461	1.100
Finan. inberts. epe motz.....	A.10	6.207	11.149	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.		2.260	2.454
Eskud. eta best. akt. baliok. ....	(*)	3.420	2.177	Aldizkakotzeagat. doik. epe/motz. ....		26	27
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>156.754</b>	<b>151.540</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>156.754</b>	<b>151.540</b>

(\*) 2019ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 1.795 euro izan ezik.

EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2019 eta 2018KO EKITALDIETAKO

Euroak milakotan

	2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	9.458	8.636
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	13.927	13.666
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	38	24
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	533	462
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>23.956</b>	<b>22.788</b>
Langileria-gastuak.....	(7.217)	(6.941)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(2.635)	(2.371)
Hornikuntzak.....	-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(7.846)	(8.152)
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus A.8).....	(3.907)	(3.746)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(21.605)</b>	<b>(21.210)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>2.351</b>	<b>1.578</b>
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....	3.050	(895)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>5.401</b>	<b>683</b>
Sarrera finantzarioak.....	11	13
Gastu finantzarioak.....	(1)	(1)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....	(443)	(80)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(433)</b>	<b>(68)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>4.968</b>	<b>615</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Lasarte-Oriako Udala Administrazioako toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Udalek kudeaketa zuzenean edo zeharka egin dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

2019ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko otsailaren 4ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hil bereko 14an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2019ko martxoaren 15ean eman zen argitara GAOn.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU GEHIGAR.	TRANSFER. GARBIAK	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak.....	-	76	-	76
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontrat. ....	247	(24)	(197)	26
4. Transferentzia arruntak.....	177	25	109	311
6. Inbertsio errealak.....	3.575	7.160	88	10.823
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.999</b>	<b>7.237</b>	<b>-</b>	<b>11.236</b>

Adierazitako aurrekontuko aldaketak finantzatzen dira Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2018ko ekitaldi itxieran.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko sei espediente izapidetu ziren eta horietako lau Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; gainerakoak, berriz, Udalbatzara eraman ziren onartzeko. 28,2 milioi euroren hasierako aurrekontua % 40 gehitu zen eta behin betiko aurrekontuak 39,4 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan	
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Kaleak asfaltatzea (*)	1.461
Hirigintzako azterketak eta proiektuak	647
Basaundi Bailararen urbanizazioa (*)	616
Ondare-eraikinen zaharberritzea	161
Argiteria publikoa	151
Kultur etxearen altzariak	131
Beste txiki batzuk	832
<b>TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>3.999</b>
Lurrak eta ondasun naturalak erostea (*)	6.000
Argiteria publikoa	548
Ikastetxeak zaharberritzea	467
Beste txiki batzuk	222
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>7.237</b>

(\*) Ikus kontratu nagusiaren analisia A.13.1en.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko martxoaren 27ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2020ko azaroaren 12ko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ	2.319
TMIZ	1.277
HILBIZ	190
JEZ	472
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>4.258</b>
EIOZ	1.154
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>1.154</b>
Ur hornidura eta estolderia zerbitzuaren tasa	1.768
Hondakinen bilketa eta tratamenduaren tasa	950
Kirol zerbitzuak ematearen tasa	613
Enpresa hornitzaileek, hegala, lurra eta lur azpia okupatzea	142
Isunak, zehapenak eta gainkarguak	144
Beste txiki batzuk	791
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.408</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>9.820</b>

Udalak bere gain hartu du atxikitako taulan jasotako zerga, tasa eta diru-sarreraren kudeaketa borondatezko aldian eta GFArekin lankidetzaz-hitzarmena du diru-bilketa epe exekutiboan egiteko.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2019ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNT.	KAPITALEZK.
<b>Estatuarenak</b>	<b>29</b>	<b>-</b>
<b>EAErenak</b>	<b>429</b>	<b>538</b>
AO: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	135	-
AO: Basaundi Bailara berroneratzea .....	-	235
AO: Basaundi Bailararen urbanizazioa (*).....	-	300
HABE: Udal euskaltegia.....	230	-
Askotariko beste zenbait dirulaguntza.....	64	3
<b>GLHtik</b>	<b>13.382</b>	<b>-</b>
GFA: Zerga itunduetan partaidetza UFFF .....	12.962	-
GFA: AMAS .....	120	-
GFA: Gizarte-zerbitzu eta prestazioen karteraren garapen-funtsa.....	76	-
GFA: Hainbat dirulaguntza.....	76	-
Andoaingo Udala: Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak (*) .....	148	-
<b>Enpresenak</b>	<b>8</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.848</b>	<b>538</b>

(\*) Andoaingo Udalak izapidetutako Lanbideren dirulaguntza, Beterri-Burruntza eskualdeko udalen ordezkari (ikus A.7).

Itunpeko zergetan partaidetza kontzeptuan erregistraturiko diru-sarrerak 2019ko ekitaldiko UFFFren likidazioari dagozkie; horren saldoa, Udalaren aldeko 284.306 eurorena, ekitaldi itxieran ordaintzeko modura ageri zen.

#### Basaundi Bailara berroneratzea

2018ko abenduaren 18ko EAEn Gobernu Kontseiluaren erabaki bitartez dirulaguntza zuzena eman zitzaion Udalari Basaundi Bailaran eraikinak zaharberritzeko eta berroneratze urbanoko jarduerak finantzatzeko. Honako hauek dira Udalari eskualdatu beharreko kopuruei buruzko erabakian jasotako aurreikuspenak eta 2019ko ekitaldi itxieran erregistraturiko dirusarrerak:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan		
URTEKOA	KONTSEILUAREN ERABAKIA	ESKUBIDE AITORT.
2018 .....	235	-
2019 .....	940	235
2020 .....	765	E/E
2021 .....	450	E/E
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.390</b>	<b>235</b>

Erabakiak aurreikusten zuen dirulaguntzaren zatirik handiena, 2 milioi euro, eraikuntza-sail bat zaharberritzeko erabiliko zela eta gainerakoa, prestakuntzaren eta enpleguaren tokiko plan bat garatzeko eta bulego tekniko bat ezartzeko.

Jarduketa horietako lehenengoari dagokionez, 2019ko azaroan Udalbatzak oinarri espezifikoak onartu zituen jabekideen erkidegoei dirulaguntzak emateko Basaundi Bailaran bizitegi-eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko (2019ko azaroaren 28ko GAO). Aurrekontu-kredituei dagokienez, erantsitako koadroan laburbiltzen dira adierazitako oinarrietan jasotako urteko kontsignazioak, bai eta uneko ekitaldiko eta etorkizuneko ekitaldietako kontabilitateko datuak ere:

Euroak milakotan					
URTEKOA	OINAR.	KONTABILITATEA			
	AURREIK.	B-BET.AURR.	BAIMEND.	ERABILIA	OBLIGAZ.
2019.....	901	970	235	-	-
2020.....	622	670	622	-	E/E
2021.....	353	392	353	-	E/E
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.876</b>	<b>2.032</b>	<b>1.210</b>	-	-

Finantzatzeko gainerako jarduerari dagokienez, 2019ko ekitaldi itxieran ere egikaritu gabe zeuden horiekin lotutako gastuak edo inbertsioak.

## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2019ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2019	AITORT. 2018	19/12/31 LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak .....	(1) 330	298	E/E	10
Behin-behineko langileen ordainsariak.....	65	64	2	2
Funtzionarioen ordainsariak.....	2.506	2.373	69	(2) 55
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	2.452	2.479	74	(3) 23
Enplegu planetako lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	61	36	E/E	4
Aldi baterako beste lan kontratuko lang. batz. ordains. ....	162	130	E/E	49
Gizarte Segurantzza .....	1.497	1.371		
Elkarkidetza.....	87	89		
Erretiro sariak .....	-	46		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	52	51		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>7.212</b>	<b>6.937</b>	<b>145</b>	<b>143</b>

(1) Bertaratzeagatiko 63.400 euroren kalte-ordainak barne hartzen ditu.

(2) Bitarteko 15 funtzionario eta praktiketako 4 funtzionario barne hartzen ditu.

(3) Langile mugagabe ez finko 1 barne hartzen du.

## Ordainsariak

Udaleko Langileen Lan Baldintzen Arau Esparruan aurreikusitakoari jarraikiz, 2019ko ekitaldian langile horien ordainsariei % 22,25eko igoera aplikatu zitzaien 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, betiere sektore publikoaren esparruan ordainsarien gaietan premiazko aurrekontuko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuak ezarritako muga gordez. Gainera, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin % 0,25eko igoera osagarria aplikatu zen, aipatutako arauaren aurreikuspenei jarraikiz.

Udalak produktibitate-osagarri bat ordainduta absentismoa arautzeko sistema bat ezarri du. Osagarri horren helburua da soldata-igoera zaharrak ordaintzea eta produktibitate-pizgarri bat ezartzea, helburuak betetzea baloratu beharrean langileak bertaratzea baloratzen duena.

## Plantillaren bilakaera

2019ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	ALTAK	BAJAK
Behin-behineko langileak.....	1	1
Karrerako funtzionarioak.....	1	(1) 3
Praktiketako funtzionarioak.....	4	-
Bitarteko funtzionarioak.....	18	18
Langile lan kontratudun finkoak.....	5	(2) 8
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	18	17
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	4	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>52</b>

(1) 2 erretiro eta truke bat.

(2) Ekitaldian alta eta baja izan diren 2 erretiro, ukapen 1 eta 5 langile aldizkako finko.

Karrerako funtzionarioei dagokienez, gaikuntza nazionala zuten toki-administrazioiko funtzionarioentzat gordetako lanpostu batean sartu ziren, zehazki, diruzaintzakoan, GFAk 2019rako deitutako lehiaketa arrunta ebatzi ondoren. Praktiketako funtzionarioen altak 2018ko EPEkoak diren udaltzainei dagozkie; udaltzain horiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2019ko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez deitutako prozesua gainditu ondoren (ebazpen horren bidez, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agenteen kategorian txanda librean sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen), prestakuntza-ikastaroa hasi zuten azaroan.





## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	TXERTAK.	Euroak milakotan	
		2019	OBLIGAZIOAK GUZTIRA
<b>ERRENTAMENDUAK</b>	-	14	14
<b>IBILGETUAREN KONPONKETAK, MANTENTZE LANAK ETA ZAINZA</b>	60	526	586
Azpiegitura eta ondasun orokorrak.....	6	141	147
Eraikin eta bestelako eraikuntzak.....	15	149	164
Makineria, instalazioak eta tresneriarena.....	-	191	191
Beste ibilgetu bat.....	39	45	84
<b>BULEGOKO MATERIALA</b>	-	60	60
<b>HORNIDURAK</b>	-	1.657	1.657
Energia elektrikoa.....	-	477	477
Ura.....	-	914	914
Gasa.....	-	118	118
Bestelako hornigaiak.....	-	148	148
<b>KOMUNIKAZIOAK</b>	-	96	96
<b>ASEGURU PRIMAK</b>	-	120	120
<b>ZERGAKEK</b>	-	8	8
<b>HAINBAT GASTU</b>	73	685	758
Jarduera soziokulturalak.....	29	407	436
Herri-jaiak.....	22	148	170
Publizitatea eta propaganda.....	12	92	104
Bestelako hainbat gastu.....	10	38	48
<b>KANPOKO BESTE ENPRESA BATZUEK EGINDAKO LANAK</b>	42	4.278	4.320
Kale-garbiketa zerbitzua.....	-	1.018	1.018
Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua.....	-	731	731
Parkeen eta lorategien zaintza-zerbitzua.....	-	545	545
Etixerako laguntza zerbitzua.....	-	345	345
Atezaintza- eta jendearentzako arreta-zerbitzuak (kirol instalakuntzak eta kultur etxea)	-	305	305
Kirol instalakuntzetan jarduerak eta ikastaroak: zuzendaritza teknikoak, sorosleak eta begiraleak	-	303	303
Azterketak eta lan teknikoak.....	28	158	186
Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerb. ....	-	132	132
IZFE: Informatika zerbitzuak.....	-	114	114
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	14	627	641
<b>DIETAK, MUGIKORTASUNA ETA LEKUALDAKETAK</b>	-	4	4
<b>GUZTIRA</b>	175	7.448	7.623



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2019ko ekitaldian, Udalak transferentziak eta dirulaguntza arruntak eta kapitalezkoak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan					
	ARRUNTAK			KAPITALEZKOAK		
	TXERTAK.	2019GUZTIRA	2019GUZTIRA	TXERTAK.	2019GUZTIRA	2019GUZTIRA
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	-	<b>1.610</b>	<b>1.610</b>	-	-	-
San Markoko Mankomunitatea (*) .....	-	1.461	1.461	-	-	-
Euskal Funtza .....	-	68	68	-	-	-
Talde politikoei ekarpenak (*) .....	-	64	64	-	-	-
Beste txikiago batzuk (4 erakunde).....	-	17	17	-	-	-
<b>IZENDUNAK</b>	<b>122</b>	<b>264</b>	<b>386</b>	-	-	-
Ttakun Kultur Elkartea: Urteko jarduerak (*) .....	70	107	177	-	-	-
"Jalgune" minusbaliat. aisialdi eta denbora liberako elkarteak (*) .....	6	30	36	-	-	-
Oriartekide Guraso Elkartea: Urteko jarduerak (*) .....	8	18	26	-	-	-
Beste txikiago batzuk (28 erakunde).....	38	109	147	-	-	-
<b>LEHIA</b>	<b>25</b>	<b>393</b>	<b>418</b>	-	-	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (*) .....	-	164	164	-	-	-
Kirolaren udal zerbitzuko dirulaguntzak (*) .....	3	106	109	-	-	-
Euskara saileko bekak .....	-	40	40	-	-	-
Egoitzetarako eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko laguntzak (*) .....	-	-	-	-	26	26
Beste txikiago batzuk (9 dirulaguntza lerro).....	22	83	105	-	-	-
<b>HITZARMENAK</b>	-	<b>151</b>	<b>151</b>	-	-	-
Beterri-Buruntzako Udalak: Eskualdeko garapena .....	-	151	151	-	-	-
<b>ZUZENAK ETA BESTE (*)</b>	<b>2</b>	<b>43</b>	<b>45</b>	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>149</b>	<b>2.461</b>	<b>2.610</b>	-	<b>26</b>	<b>26</b>

(\*) Aztertutako transferentzia eta dirulaguntzak.

### Beterri-Buruntzako Udalak: Eskualdeko garapena

Eskualdean tokiko garapenerako egitura bat ez zegoenez gero, harik eta 2017ko urtarrilaren 27an sortu zen arte, Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten sei udalek lankidetzahitzarmen bat izenpetu zuten tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu gaietarako. Horren arabera, lau urtez, Andoaingo Udalak bere gain hartu zuen hitzarmenaren sinatzaileen ordezkari hitzarmenaren xede ziren gaietan, eta, beraz, gainerako udalen ekarpen ekonomikoen hartzaile eta kudeatzaile egitekoa, bai eta lor litezkeen beste diru-sarrerara edo dirulaguntza batzuen ere.

Lasarte-Oriako Udalari dagokionez, hona hemen 2019ko ekitaldian egikaritutako gastuen eta etorkizuneko gastu-konpromisoen xehakapena ekitaldi itxieran:

URTEKOA	Euroak milakotan			
	B.BET. AURREK. BAIMEND.	ERABILIA	OBLIGAZ.	
2019.....	164	151	151	151
2020.....	154	154	154	E/E
<b>GUZTIRA</b>	<b>318</b>	<b>305</b>	<b>305</b>	<b>151</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hitzarmenak hasiera batean lau urteko indarraldia zuen, beste lau urtetan luzagarria, nahiz baldintzetan kontratua suntsitzeko arrazoi modura aurreikusten zen eskualdegarapeneko agentzia bat sortzea, zeinahi dela ere horren molde juridikoa. 2019ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Udalak onartu zuen Beterri-Buruntza eskualdearen tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitate bat sortzea.

## A.8 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2019ko kontu-mugimenduak:

